



## **Iruraiz-Gaunako Udalak Lanturri zentro soziokulturala utziko du hileta zibilak egiteko.**

Udalbatzak onartu egin zuen atzo agur horiek arautuko dituen ordenantza.

Iruraiz Gaunako osoko bilkurak onartu zuen atzo hileta eta omenaldi zibilen antolaketa arautzen duen ordenantza. Horrela, hemendik aurrera, udalerriko bizilagunek gune bat izango dute ekitaldi eta agur horiek egin ahal izateko. Azilun dagoen Lanturri zentro soziokulturala izango da aukeratutako lekua, hain zuzen.

Iratxe del Barco Iruraiz-Gaunako alkateak azpimarratu du ordenantza honekin udalerrian dagoen eskari bati erantzun nahi zaiola. "Uste dugu gure eginbeharra dela gure herritarren erlijio, ideologia eta kultu askatasuna bermatzea, gure udalerriko edozein pertsonak horrelako omenaldi edo agur bat egin dezan beste udalerrri batera joan beharrik izan gabe", azaldu du del Barcok.

Atzo onartutako ordenantzaren arabera, ezin da omenaldia egon gorpua bertan dela. Nolanahi ere, errauts kutxa edo anforekin egin ahal izango dira. Astelehenetik igandera 9: 00etatik 20: 00etara egiteko aukera egongo da. Ekitaldiak ezingo du bi ordu baino gehiago iraun, eta 10 euroko tasa ordaindu beharko da ordu bakoitzeko. Gainera, Udalak eskatzailearen eskura jarriko ditu megafonia, pantaila eta proiektagailuko oinarritzko sistema bat, beti ere posiblea bada eta 100 euroko fidantza ordaindu ondoren.

Iruraiz-Gauna, 2023ko azaroaren 8a.



**El Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna cederá el centro socio-cultural Lanturri para la celebración de funerales civiles.**

El pleno del Ayuntamiento dio luz verde ayer a la ordenanza que regulará esas despedidas.

El pleno de Iruraiz Gauna aprobó ayer la ordenanza que regula la organización de funerales y homenajes civiles. De este modo, a partir de ahora, los y las vecinas del municipio podrán contar con un espacio para poder llevar a cabo estos actos. Será el centro socio-cultural Lanturri, ubicado en Azilu.

La alcaldesa de Iruraiz-Gauna, Iratxe del Barco, ha destacado que con esta ordenanza se pretende dar respuesta a una demanda que existe en el municipio. "Creemos que es nuestro deber garantizar la libertad religiosa, ideológica y de culto de nuestros vecinos y vecinas que debíamos habilitar los mecanismos necesarios para que cualquier persona de nuestro municipio pueda realizar un homenaje o una despedida de estas características sin tener que desplazarse a otro municipio", ha explicado del Barco.

Según la ordenanza aprobada ayer, no cabe la celebración de funerales de cuerpo presente. En todo caso, se permitirá la celebración de los mismos con urnas o ánforas de cenizas. Estos actos se podrán llevar a cabo de lunes a domingo en horario de 9 a 20 horas. La duración total del acto no podrá exceder de dos horas y se deberá abonar una tasa de 10 euros por cada hora. Además, el Ayuntamiento pondrá a disposición de las personas solicitantes un sistema básico de megafonía, pantalla y proyector siempre que sea posible previo abono de una fianza de 100 euros.

Iruraiz-Gauna, 8 de noviembre de 2023.